

Ikasturte berrirako prest da Aitzol Udal Euskaltegia

‘Euskaraz hasi, euskaraz hazi, euskaraz bizi, zure bizitza euskarazi’ leloa aukeratu du Tolosako euskaltegiak 16 urtetik gorako herritarrak euskara ikastera animatzeko //

Beharpenak aterako dituzte kalera Tolosako dendariek larunbatean

‘Azken beharpenak’ eguna antolatu du Tolosa&Co elkarteak; saltokientzat «urte gogorra» izan dela eta bertako ekonomia babestara deitu dute //

Behar dutenei laguntzeko produktuen bilketa, Amasa-Villabonan

Herriko elkartasun sareak oinarritzko produktuak biltzeko kanpaina jarri du martxan; herriko saltokietan jarritako kutxetan utzi ahalko dira produktuak //



ALKIZA

PROIEKTUAK SORTZEKO BIDEAN

Idoia Unzurrunzaga argazkilari donostiarra eta Maria Andres dantzari mungiarra dira Sormenaren Kabia beka jaso dutenak; iraila eta azaroa bitarte Alkizan egingo duten egonaldian burutuko dituzte lanak eta abenduan aurkeztuko dituzte //

IRATISAZAR ARTOLA

AZKEN
BEHERAPENAK!

WWW.TOLOSANDCO.ORG

Irailak 12, larunbata 10:00 - 20:00

Tolosa
&Co

TOLOSA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Tolosako Udaleko nahiz Aitzol Udal Euskaltegiako ordezkariak, ikasturtearen aurkezpen ekitaldian. JOSU ARTUTXA

Bizitza «euskarazi» asmoz abiatuko dute ezohiko ikasturtea

Hilaren 22ra arte dago zabalik Aitzol Udal Euskaltegian matrikulatzeko epea; eskaintza zabala izango da, eta egoerak hala eskatuta, babes neurri guztiak hartu dituzte

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Beste urte batez, ikasturte berriari ekingo dio Aitzol Udal Euskaltegiak. *Euskaraz hasi, euskaraz hasi, euskaraz bizi, zure bizitza euskarazi* leloa aukeratu dute 2020-2021 kurtsorako. Atzo aurkeztu zuten ikasturte berria, eta bertan izan ziren, besteak beste, Olatz Peon Tolosako alkatea eta Maixabel Zubillaga euskaltegiko zuzendaria.

«Euskararen irakaskuntzarekin dugun konpromisoari eutsiz, bizi dugun ziurgabetasun egoera honetan ere, herritarrei euskara ikasteko eskubidea bermatu behar diegu», aipatu zuen Peonek. «Ezohiko ikasturtea izango dela aurreikusten da, eta ondorioz, eskoletan egoteko eta euskara ikasteko modu berrietara egokitu beharko dugu», nabarmendu zuen Zubillagak. Hala ere, egoerak eskatzen duenera egokitzeko «prest» daudela berretsi zuen. «Euskara ikastea ezin dugu bigarren maila batean utzi».

OROTARIKO AUKERAK

16 urtetik gorako edonork eman dezake izena euskaltegiko ikastaroetan, hala nola, etorkinek, euskaraz alfabetatu gabekoek,

gurasoek, erretirodunek, merkataritzako langileek, baita kolektiboek ere. Gainera, ordutegi zabalak eskaintzen da, ikasleen egoeretara moldatzeko: asteen 10, 8, 6 edota 5 orduko aurrez aurreko moduluak izango dira, goizean goiz hasi eta iluntzera arte. «A1 mailatik hasi eta C2-ra bitarte agiri ofiziala nahi duen oro matrikulatu daiteke. Bestalde, taldea osatzeko gutxienez 7 lagun beharko dira aurten. Aurrez aurreko eskolez gain, autoikaskuntzarako, hau da, etxetik ikasteko aukera ere izango da», azaldu zuen zuzendariak.

Matrikula egiteko hainbat bide ezberdin daude: Tolosako Udalaren webgunean (www.tolosa.eus), aitzolue@tolosa.eus helbidera idatziz, 943 65 10 06 telefono zenbakira deituz, edota Aitzol Udal Euskaltegiara bertaratu, goizez (9:00-13:00) edo arratsaldez (16:00-20:00). «Ezinbestekoa da izena lehenbailehen ematea», zioen Zubillagak.

EUSKALDUNTZEKO LAGUNTZAK

Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak dituen baliabideen zati handi bat Aitzol Udal Euskaltegiaren jardunera bideratzen da: herrian erroldatutako-

en artean, B2 mailan daudenei %75eko diru laguntza ematen die udalak, C1-ekoei %50ekoa, eta C2-koei, berriz, %25ekoa.

Aitzol Udal Euskaltegiak, gainera, Tolosan ez ezik, herriko hainbat auzotan eta eskualdeko zenbait herri txikitik ere baditu taldeak, hala nola, Amaroitz auzoan, Amezketan, Asteasun eta Larraulen. «Taldea horiek mantentzeaz gain, aurten lehen aldiz Tolosaldeko Euskararen Mahaitik sortutako elkarlanaren ondorioz, Peñaskal fundazioan ere eskolak emango ditugu, gazte etorkinak euskalduntze bidean jartzeko helburuarekin».

URTETAKO LANARI, BALIOA

Bestetik, Peonek nabarmendu duenez, «azken 34 urtetan euskararen erabilera 20 puntutan igo da Tolosan. Gainera, 100 urtean lehen aldiz, gaztelania baino euskara gehiago entzun da Tolosako kaleetan. Hein handi batean, euskararen normalizazioaren alde eta herritarrek euskalduntzeko erakunde, ikastetxe zein euskaltegiek egindako lanari zor diogu hori. Erronkak ditugu aurrean eta lanean jarraituko dugu euskararen erabilera kalean zein etxean indartzeko».

Euskara ikastaroetarako izen ematea zabalik

Ikastaroak herrian eskaintzeko baliabideak jarriko ditu Ikaztegiako Udalak; hilaren 17ra arte luzatuko da matrikulazio epea

J. Artutxa Ikaztegieta

Ikaztegiako Udalak, eskualdeko euskalgintzako hainbat eragilerekin elkarlanean, 2020-2021 ikasturtean ere euskara ikastaroak herrian bertan eskaintzeko baliabideak jarriko dituela jakinarazi nahi die herritarrei. «Gurea bezalako herri euskaldunetan euskara jakiteak duen garrantzia kontuan hartuta, beste urte batez ahalegin berezia egin nahi izan dugu euskara ikasteko, hobetzeko edo alfabetatzeko pausoa ematera animatu zaitezten», azaldu die.

Behe, erdi eta goi mailako euskara ikastaroen eskaintza egingo da, eta izena ematen dutenen artean, ordutegiak eta mailak kontuan hartuta, taldeak sortzeko aukera aztertuko da. Taldea sor-

tzeko gutxienezko kopurura iritsiz gero, ikastaroak herrian bertan eskainiko dira. Urtero bezala, herrian sortzen diren ikastaro guztiak diruz lagunduko ditu udalak.

Ikaztegiako Udalak herritarrek gonbidatu nahi dituzten ikastaroetan parte hartzerako: «Euskararen normalizazioan, guztiok batera, urratsak ematera gonbidatzen zaituztegu. Animatu eta ikasi euskaraz».

Irailaren 17ra arte luzatuko da matrikulazio epea. Izena emandako guztiei bilera baterako deia egingo zaie epea amaitu eta egun gutxira. Izena emateko nahiz ikastaroen inguruko informazio gehigarria jaso nahi dutenek Ikaztegiako udaletxera gerturatu edota 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar dute.

Uxue Alberdi eta Eider Rodriguez, Sormenetik-en

J. Artutxa Tolosa

Tolosako kale erabileraren neurketen arabera, euskara indartsuen larunbateroko azokaren bueltan egoten da. Hori dela eta, Sormenetik proiektuaren bitartez, euskara indartsuen dagoen guneari hauspo berria eman nahian solasaldiak antolatzen hasi zen Galtzaundi Euskara Taldea.

Euskara, sorkuntza eta azoka elkarrekin aberasteko, edizio berri honetan ere, publikoak sortzaileen ikuspegia zuzenean jasotzeko aukera izango du, TAK arraun klubaren entrenamendu gunea (Zerkausi azpialdea) kultur hausnarketarako eta heziketarako gune bilakatuz. Larunbatean izango da lehen saioa. Uxue Alberdi eta Eider Rodriguez idazleak izango dira protagonistak, eta feminismoak bertsolaritza eta literaturan duen tokiaz

hitz egingo dute. Saioa 12:00etan hasiko da eta Haritz Azurmendik gidatuko du. Ekitaldia giro-tzeaz, berriz, Loatzo musika eskolako musikariak arduratuko dira. Irekia izango da, osasun neurriek baldintzatutako edukiera mugarekin eta bete beharreko higiene eta distantzia neurriak betez.

Alberdik eta Rodriguezek lan bana idatzi dute Susa argitaletxeak saiakera feministez osatutako Lisipe bilduman: Alberdik, *Kontrako eztarritik* (2019); Rodriguezek, berriz, *Idazleen gorputzak* (2019). Erronka politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak aztertzen ditu Lisipek. Pentsamendu liburu sail bat da, baina itzulpenek eta elkarriketek ere tokia dute. Akademia, kazetari-tza, mugimendu sozial, alderdi eta elkarte ezberdineko emakumeek idazten dituzte Jule Goikoetxeak zuzendutako liburuak.

Gaur hasiko da Leidorreko zine denboraldia

TOLOSA // Ostegunetik astelehenera izango dira emanaldiak eta edukiera %60koa izango da. Emanaldi bakoitzaren ondoren desinfektatze lanak egingo dira. Sarreraren salmentan eta bonuen sisteman berrikuntzak egongo dira gaur egungo egoerara egokitzeko, eta *online* eskuratu ahaliko dira.



Herenegun hartutako irudia. ATARIA

Hasi dute ikasturtea Pedro Maria Otaño herri eskolan ere

ZIZURKIL // Herenegun hasi zuten ikasturtea Pedro Maria Otaño herri eskolan. Segurtasun neurriekin hasi dutela eta «ikasleak beharrezko goxotasunez jasotzeko» ikasturte hasiera tentuz prestatu dutela esan dute. «Pozik eta lasai» joan zen eguna, «pixkana moldatzen eta egokitzten joango gara egunerokoa».

19

ESKUALDEKO AZKEN POSITIBOAK

Atzoko datuen arabera 9.906 PCR proba egin zituzten eta 661 izan ziren COVID-19an positibo, 240 Gipuzkoan. Eskualdean 19 positibo berri egon ziren: bana Abaltzisketa, Berastegi, Elduain, Ibarra eta Ikaztegietan; bina Berrobi eta Hernialden, lau Tolosan, eta sei Villabonan.

Usabalgo bazkideek izena eman dezakete jada ikastaroetan

TOLOSA // Bazkide ez direnentzat irailaren 14an irekiko da izena ematea. Helduen ikastaroak irailaren 21ean hasiko dira eta haurrenak eta gaztetxoak 28an. Osasun larrialdia dela eta, protokolo zorrotza zehaztu dute, eta kiroldegira joaten diren guztiek jarraitu beharko dute. 26 ikastaro eskainiko dituzte.

Oinarritzko produktuen bilketa, behar dutenei laguntzeko

Amasa-Villabonako Elkartasun Sareak oinarritzko produktuak biltzeko kanpaina abiarazi du; ekarpenak irailaren 12ra arte egin ahal izango dira

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Elkartasun Sareak, udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, oinarritzko produktuen bigarren bilketa abiarazi du. Egoera ekonomiko larria bizi dutenentzat oinarritzko produktuak biltzea da elkartasun ekimenaren helburua.

Kanpaina larunbata arte luzatuko da eta herritarrek Amasa-Villabonako hainbat saltokitan jarritako kutxetan utzi ditzakete produktuak. Larunbatean bertan Eroski eta BM supermerkatu atarietan ere egongo dira.

ZERREDA LUZEA

Kanpainaren helburua oinarritzko produktuak biltzea da. Bate-tik, elikagaiak jasoko dituzte, hala nola, olioak, lekaleak, kon-tserbak, pasta eta arrozak, esnea edota gailetak. Bestetik, xanpua, bainurako gela, pixoi-halak, kon-presak, detergentea edota lixiba



Janari bilketa egingo dute berriz ere, behar dutenei lagundu ahal izateko. I.G.L.

bezalako garbiketarako produktuak bilduko dituzte. Azkenik, eskolarako materialak uzteko aukera dago; arkatzak, boligrafoak, koadernoak, pinturak, borrago-mak, zorrozkaileak eta abar.

Elkartasun Sarea egoera ekonomiko larria bizi dutenak eta bazterketa arriskuan dauden herritarrek laguntzeko elkartasun dinamika herritarra da. Boluntarioz osatuta dago eta pobrezia

egoeran edo bazterketa sozialaren arriskuan dauden pertsonei beraien oinarritzko beharrak asetzen laguntzea da lehentasuna. Auzolana eta elkartasuna ardatz, pertsona guztiek eskubide guztiak izan ditzaten lan egiteko el-kargunea da.

Elkartasun Sareak bere gain hartu duen lehen zeregina hortaz, pobrezia egoera larria bizi duten herriko pertsonek elikagai bilketa eta banaketa egitea da, eta horretan ari dira bigarren kanpaina honekin.

Udaleko Gizarte zerbitzuen sailarekin elkarlanean eta Gipuzkoako elikagai bankuarekin hitzarmena eginda, elikagaiak eskuratzeko zailtasunak dituzten familiei laguntzen diete, oinarritzko beharren artean oinarritzkoena den hori bermatuta izan dezaten. Bertan parte hartzeko aukera dago eta horretarako 627 364 521 telefono zenbakira deitu daiteke.

Tolosa&Co -ko dendariak beherapenak aterako dituzte kalera

Erredakzioa Tolosa

Tolosako merkatarien elkarteak *Azken beherapenak* eguna antolatu du larunbaterako.


Tolosa&Co-k esan duenez «urte gogorra izaten ari da, orokorrean, saltoki txikientzat» eta horregatik jarri nahi izan du bere aletxoak.

«Guztiok ekonomia lokala babestu eta biziberritzeko» eta «ematen duguna jasotzen dugula ulertzeko» antolatu dute eguna. «Gure bezeroen bezero gara, gure bizilagunen egunerokoa suspertzeko motorra, eurak gurea diren bezala», gaineratu du merkatarien elkarteak.

Larunbatean, hilak 12, hortaz Tolosa&Co elkarteak kide diren saltokietako askok beherapenak jarriko dituzte dendetako atarietan. Segurtasun neurriak bete beharko dira.



Eskaneatu larunbatean kalera aterako diren dendetako zerrenda ikusteko:
www.ataria.eus



Atarikideentzat bi kutxa ditugu

AMA



AMA tabernako gazta tarta txikia eta dozena bat kroketa dituen bi kutxa ditugu atarikideentzat



hizkuntza
eskola
academia
de idiomas

elduaian
hizkuntzaeskola · academia de idiomas

**HIZKUNTZAK
HITZAK
BAINO GEHIAGO
DIRENEAN**

BEHAR DUZUN BULTZADA

ATZERRIRA BIDAIATU NAHI DUEN JUBILATUA BAZARA
ETA INGELESA EDO FRANTSESA EZ BADAIZU

GAI ZEHAZTETAKO ELKARRIZKETETAN ZURE INGELESEKO
HITZ-JARIOA HOBETZEA BEHAR BADUZU

2020/21 IKASTAROAK

**METODOLOGIA PROPIOA: DINAMIKOA,
DIBERTIGARRIA ETA PARTE HARTZEKO**

**MAILAREN ARABERAKO HIZKUNTZA
GUZTIETAKO IKASTAROAK**

**ADIN GUZTIETARAKO:
HAUR, GAZTE NAHIZ HELDU**

TALDE MURRIZTUAK ETA ORDUTEGI ANITZAK

**CAMBRIDGE ASSESSMENT ENGLISH
ZENTRO AZTERTZAILE OFIZIALA**

FAMILIENTZAKO DESKONTU INTERESGARRIAK

TOLOSA

Martin Jose Iraola, 8 3. ezk. - Tel.: 943 67 00 52
Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel.: 943 67 47 33
Nafarroa etorbidea, 12 solairuartera - Tel.: 943 67 47 33
Pablo Gorosabel kalea, 40 beheka - Tel.: 943 65 23 72

ALEGIA

San Juan, 46 1. esk. - Tel.: 943 65 57 26

elduaian@elduaian.com

Alurr dantza taldeak zabalik du matrikulazioa

Erredakzioa Ibarra

Pasa den ikasturtea berezia behar zuen izan Ibarako Alurr dantza taldearentzat, izan ere, 25. urteurrena ospatzen zuen, eta horren harira, «emanaldi berezi ugari, festa eta jende askoren inguruko ospakizunak» ziztuzten aurreikusita. Covid-19k sortuta, ordea, ezin izan dute pentsatuta zuten moduan ospatu, baina, taldekideek gogoratzen dute, geldirik ere ez direla egon: «*online* klaseei ekin genion, koreografia berriak ikasi ditugu, Alurren abestiaren bideoklipa grabatu dugu, egoera hobetzean Ibarako kiroldegian hasi ginen entseatzen, San Bartolome egunean *streaming* bidez lehengo urteko emanaldia eskaini genuen...». Horrekin batera, era ezohikoan datorren ikasturte berria prestatzeko lanean ere egon dira, eta zabaldu duten eskaintzarako matrikulazio epea zabalik dutela jakinarazi dute.

Haur, gazte nahiz helduentzat prestatu dituzten ikastaroetan izena emateko *alurr.eus* dantza taldearen webgunera edota Ibarako kultur etxera jo daiteke.



Adin guztietako pertsonentzat eskaintza zabala dute Alurren. ENERITZ MAIZ

Irailaren 28ra arte egongo da ize-
na emateko aukera.

Ikasturte hasiera gaztetxoentzat irailaren 28an izango dela azaldu dute Ibarako dantza taldeak, eta gazte eta helduentzat, berriz, irailaren 14an. Era berean, gogoratu dute «protokoloak eta segurtasun neurriak errespetatuta» jardungo dutela ikastaro guztietan. Bestalde, lehenengo aldiz izena ematen duten txikie-

nek lehendabiziko bi asteetan esperimentazio moduan aritu ahalko direla azaldu dute, eta behin dantzan jarraitu nahi dutela ikusitakoan osatu ahalko dutela matrikula.

Ikastaroen eskaintza osatua ikusteko *alurr.eus* webgunera jo daiteke, eta zalantzak argitzeko *alurr@alurr.eus* helbide elektronikora idatzi daitekeela adierazi dute Alurr dantza taldeak.

20 minutuko aparkaldiak Euskal Herria kalean

Erredakzioa Ibarra

TAO arautzen duen ordenantza berriari esker, Euskal Herria kalean aparkaldi laburreko bi gune ezarri dira, ibilgailuen eta herri-tarren errotazioa bermatzeko. Igor Zapirain Ibarako alkateak azaldu duenez, «herriko merkataritzari indarra ematea da alda-ketaren helburu nagusia». Modu honetara, erosketa arinak burutzeko tartea eskainiko zaie herri-tarrei, eta maiztasunez ibilgailuen aldaketak emango dira. Urriaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.

Aparkaldia 20 minutukoa eta doakoa izango da, baina erabiltzaileek tiketa atera beharko dutela azaldu dute, «denbora tarte-



Urriaren 1ean jarriko da abian. ATARIA

ak azkarrak izatea bermatzeko». 20 minutuko aparkaleku hauek Euskal Herria kaleko 12 A B C D E zenbakien parean eta 37, 39 eta 41 zenbakien parean ipini dituzte.

Ibarako Udalak kultur proposamenak biltzeko eskaria egin du

Erredakzioa Ibarra

Aurtengo San Bartolome jaiak bertan behera geratu direnez, kultur egitarau bat osatzeko asmoa erakutsi zuen udalak, eta pasa den asteen egin zuten bilera festa batzordeko kideek. Bilera horretan, ekintza puntualen egitarau bat osatzeko ahalegina egingo zela hitzartu zuten, horrela, udazkeneko egitarau bat eskainiko zaie herri-tarrei. Osatu ahal izateko, ordea, kultur proposamenak bildu nahi dituzte eragile ezberdin zein norbanakoengandik. Irailaren 14a baino lehen egin beharko dira proposamenak. Gaur egungo egoerara molda daitezkeen proposamenak izan daitezela eskatu dute festa batzordetik.

Aurtengo bekari esker, argazkia eta dantza protagonista

Idoia Unzurrunzaga eta Maria Andres dira Sormenaren Kabia beka jaso dutenak; iraila eta azaroa bitartean Alkizan izango dira



Ezkerrean Unzurrunzaga, eta bere alboan Andres, atzo goizean Alkizan egindako agerraldian. I.S.A.

Irati Saizar Artola Alkiza

Sormenaren Kabia beka baditu irabazleak: Idoia Unzurrunzaga argazkilaria eta Maria Andres dantzaria. Iraila eta azaroa bitartean Alkizan izango dira euren proiektuak burutzeko. Atzo goizean elkartu ziren biak Alkizan bertan, eta Iñaki Irazabalbeitia Alkizako alkatea, Edurne Ayuso Kultur eta Turismo teknikaria eta Koldobika Jauregi epaimahaikidearekin batera, bekaren eta egingo dituzten proiektuen inguruko xehetasunak eman zituzten.

Alkizako Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, artistek hausnartu, sortu, esperientiatu eta esperientziak partekatze egonaldia sortu zuen 2018an. Ekainean artistentzako egonaldiaren hirugarren edizioan parte hartzeko deialdia egin zutenetik, aleka-aleka jaso dituzte proposamenak, 15 orotara. Antolatzaileek azaldu zuten, «emakume aurpegia» du aurtengo ekitaldiak ere, izan ere, jaso dituzten proposamenetatik bederatzi emakumezkoak baitira. Aurkeztutako proiektu gehienak Euskal Herriko artistenak izan direla azaldu zuten, baina Txile, Ekua-dor eta Bartzelonako hautagaien proposamenak ere jaso dituztela argitu zuten.

Aurten, ahalegin berezia egin dute antolatzaileek egonaldia bi astetik hiru astera luzatzeko, horrela aukera izango dute egonaldiaz «gehiago gozatzeko». Era berean, antolakuntzak «izugarri estimatu» du hautagaiak Alkiza

ezagutzeko eta alkizarrek euren proiektuetan inplikatzeko «aparteko ahalegina» egin izana.

Dantzariak, koreografoak, informatikariak, aktoreak, ilustratzaileak, bitxigileak, zinemagileak, antzerki sortzaileak... denetarik profesionalen lanak jaso dituzte. Eta horiek epaitzen aritu dira Aizpea Goenaga, Koldobika Jauregi, Nagore Legarreta eta Xabier Artola. Hirugarren edi-

Bi artistek herritarrek hartu- emana izango dute euren proiektuak aurrera eramateko

zioko maila «igo» egin dela esan zuen Jauregik, «profesional askok egin baitituzte proposamenak». «Zalantza gutxi izan ditugu irabazleak hautatzerakoan».

BI ARTISTA, BI PROIEKTU

Bata argazkigintzari lotuta, eta bestea dantzari lotuta. Bi propo-

samen erabat ezberdin landuko dituzte bi artistek, Alkizan egingo duten egonaldian. Artista bakoitzak mila euroko beka bana jasoko du proiektua egiteko.

Maria Andres Donostian bizi den mungiarra, hiriko zurrundiarekin gogaiturik, Alkizako parajeetako giro baketsuaren bila joango da. «Nire esentzia aurkitu nahi dut», zioen. Bakardadeaz egin nahi du gogoeta; bai bakarririk, eta baita herritarrek batera ere, «berriz mugimendura eta gorputzera eramateko bakardade hori». Lehen astean isolamendu prozesu bat egingo du, eta bigarren astean hainbat grabazio egingo ditu alkizarrekin batera bakardadeari buruz hitz egiteko, eta amaieran, bildutako osagaiekin dantza pieza bat osatuko du.

Idoia Unzurrunzaga donostiarrak, aldiz, alkizarrek bere ingurunearekin zer nolako harremana duten aztertu nahi du. Horretarako, egonaldian zehar, Alkizako bost auzoetan bizi di-

ren hainbat bizilagunekin ibilideak egingo ditu. «Laguntzen naudenak bere protagonismoa izango du, berari esker ezagutuko baitut herria», esan zuen. Herriarren ahotsek, naturaren soinuek eta parajeetako argazkiek osatuko dute Unzurrunzagaren lana. Egondian zehar, tailer bat egingo du hurrekin, objektu geometriko bat lortzeko. Eta amaieran, 360 graduko argazkiz

osaturiko bisita birtualak aurkeztuko ditu.

Era berean, Unai Sorrairen bi-deogile alkizarra bi artisten alboan izango da egonaldian zehar, eta ikus-entzunezko lan banatan laburbilduko du sortzaileen lana. Abenduaren 18an, jendarean aurkeztuko dituzte aurtengo edizioan egingo diren lanak eta eurekin solasean aritzeko aukera izango da.

'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irriti saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



«TAK Eren parte sentitzen naiz, eta beti sentituko naiz»

BEÑAT AZALDEGI SASKIBALOI JOKALARI OHIA

Ez du jarraituko TAKEko talde nagusiko jokalaria izaten denboraldi honetan, baina ez du klubarekin lotura etengo; kirola egiteko gogo triatloiarekin betetzen du orain

Imanol Garcia Landa Tolosa

Saskibaloia jokalaria izateari utzi dio Beñat Azaldegik (Tolosa, 1994). Hainbat urtetan aritu da TAKE klubaren lehen taldean, eta aurreko urtean ligako jokalaria baliotsuena izendatu zuten.

Nola hartu zenuen saskibaloia uzteko erabakia?

Ez da egun batetik bestera hartutakoa izan. Orain pare bat urte hasi nintzen pentsatzen amaieraren hasiera izan zitekeela. Denboraldi hasieratik erabakita nuen azken urtea izango zela. Denboraldia ezin izan badugu bukatu ere, pentsatuta nuenari eutsi diot.

Justu Jon zure anaiak ere utzi du entrenatzaile kargua denboraldi honetan.

Eta ez da izan batera hartutako erabakia. Bion arrazoiak ezberdinak izan dira. Jon entrenatzailea izan den azken bi urteetan saskibaloia eta lanaren uztarketa nahiko zaila izan du. Nirea ez da lanaren uztarketarengatik izan, nirea desgaste moduko bat izan

da, eta beste gauza batzuk egitea ere asko gustatzen zait. Saskibaloia denbora dezente kentzen du, eta nire erabakia horregatik hartu dut.

Azken urtea berezia izan da, COVID-19a dela eta.

Egia esan martxora arte denboraldia nahiko txukun zihoan, eta gure helburua betetzen ari ginen. Egia da kirolari guztientzat bezala, bat bateko kontu bat izan zela. Bestalde, esan beharra dut ondo ohitu naizela. Esan nahi dut ez zaidala gogorra egin saskibaloirik gabe bizitzea. Eta horrek ere bultzatu nau pauso hori hartzera.

Besteak beste, ez duzu aukera izan kantxan agurtzeko.

Ez dut pentsatzen klubetik erabat urruntzea. Egia da kantxan agur esatea gustatuko litzaidakeela, batez ere Usabalen, zaletuei eskerrak emateko. Baina horrela egokitu da. Nik denboraldi hasieratik pentsatuta nuen azken urte denboraldia behar bezala ez bukatzeak ez du baldintzatu beste urte bat jarrai-



I.G.L.

tzea. Horrela gertatu da, baina gauza okerragoak gertatu dira munduan, eta horrela utzi beharko dugu.

Ze lotura izango duzu TAKE klubarekin?

Ez daukat zehaztuta. TAKEko kirol batzordearekin hitz egin beharko nuke. Jokalari bezala ez, aldi baterako behintzat. Baina egongo dira moduak laguntzeko. Ni TAKEren parte sentitzen naiz eta beti sentituko naiz.

Gogoan duzu nola hasi zinen saskibaloian?

Bai, nola ez ba. Oso garrantzitsua izan da saskibaloia guretzako. Seigarren mailan hasi ginen; justu orain lehenengo taldeko entrenatzailea den Goar Artetxerekin eta Juan Mari Lasarekin hasi ginen entrenatzen, infantilak izan aurretik. Oso polita izan zen lehenengo esperientzia hori, eta gero urte luzeetan ere oso esperientzia polita izan da. Seniorra izan aurretik egindako sei urteen oso oroitzapen onak ditut, ez nuke ezerengatik aldatuko. Talde oso polita genuen, lagun talde bat ginen; aldi berean lehiatzea gustatzen zitzaigun, baina oso

ondo moldatzen ginen elkarrekin. Hori zoragarria izan zen. TAKEk aukera ematen zuen zaharragoekin jokatzeko, eta horrek bere emozioa gehitzen zion, berez zirrargarria den kirol bati. Gero seniorretako urte batzuk ikaragarri politak izan dira. Asebeteta noa.

Ze bizipen nabarmenduko zenituzke?

Lehen taldera iritsi aurreko taldeak gure belaunaldiarentzat garrantzi handia izan zuen, oso bloke polita genuen, eta oso urte politak izan ziren. Oso gogoan ditut TAKErekin egindako bidaia: urteko egunik onenak izaten ziren, umetan udako torneoak jokatzeko, eta senior taldearekin ere bidaia bikainak egiten genituen Kataluniara joanez. Ikaragarri gozatzen genuen denboraldi-aurreaz. Horrez gain, lagunez eta bidaiez aparte, kirol mailan lortutakoak ere gogoan ditut: EBA ligara igoera, eta jaietsiera ere bai, garrantzitsua delako horrelako uneak bizitzea ere. Taldean izan naizen 13-14 urte horiek ez nituzke ezerengatik aldatuko.

Iazko denboraldian ligako jokalaria baliotsuena izan zinen. Zer suposatzen du horrek?

Ez nion bestelako garrantzirik eman. Polita izan zen intsignia hori jasotzea. Gero zenbaitzuk txantxa egin didate horren kontura. Nik uste dut lanaren fruitu izan zela. Zerbait ona izan badut nire ibilbidean nahiko saiatua izan naizela izan da, nahiko presente egon naizela, eta lan horren fruitu izan zen.

Zer esango zenuke TAKE klubari buruz?

Hitz onak besterik ez ditut. Hantutuz joan da, baina oraindik betiko herriko talde hori izaten jarraitzen du, eta ez nuke nahi filosofia hori galtzea. Oso eskola ona iruditzen zait, orokorrean erakusten dituen baloreak beste klub batzuekin alderatuz askoz humanoagoak iruditzen zaizkidalako. Argi dago galtzen ikasten dela, tokatzen delako, eta irabazterakoan nahiko apalak izaten erakusten dute.

Kirola, baina, ez duzu guztiz utzi, triatloian hasita baitzeunden.

Nahiko anekdotikoa da, afizio moduan egiten dudana. Aurten ezin izan ditut egin, baina aurreko urtean egin nituen proba batzuk. Oso esperientzia polita izan da, eta beste arlo bateko lagun talde bat topatu dut. Aurten, dena bezala, geldirik dago, baina jarraitzen dugu kirolaz gozatzen. Bestalde, udan istripu bat izan zenuen bizikletarekin.

Maiatza bukaeran sorbalda atera nuen, gero ebakuntza egin zidaten, eta hori izan zen saskibaloia uztera eraman ninduen azken bultzada, denboraldi bukaeran zalantzekin bainenbilen. Orain berreskuratze lanetan gabilta, baina osatuko gara. Traumatologoak gomendatu zidan kirola egiten hasteko. Kirola egitea gustatzen zait, behar dut energia gastatzeko, eta orain lasai ari naiz, inongo betebeharririk gabe.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Teknologia traineruetara

Egoitz Zalakainek sentsore batzuk diseinatu ditu traineruetan erabiltzeko; Orioko gizonezkoen lehen taldearekin ari da lanean teknologiak kirol horretan bidea egiteko

Imanol Garcia Landa Tolosa

Egoitz Zalakain tolosarra kirolaria izateaz gain, ingeniari elektronikoa da, eta teknologia erabili izan du kirola egitean. «Bada- kit ze ekarpen egiten dion teknologiak kirolari eta nik horretan sartu nahi nuen». Arrauna aukeratu zuen, bera arraunean behin ere aritu ez den arren: «Oso kirol erakargarria iruditzen zait alderdi teknikotik, eta ikusi nuen teknologia ez dagoela oso sartuta bertan. Aulki mugikorrean, nazioarte mailako modalitatea izanik, teknologia sartuagoa dago. Beraz, traineruen munduan aukera bat ikusi nuen eta horretan hasi nintzen».

Idea buruan aurretik bazuen ere, lau bat urte daramatza proiektuarekin buru belarri. Tolosaldea Saretzenek bultzatutako Proiektu Estrategikoen I. Deialdiaren hautatuetakoa bat izan zen, bertan jasotako diru laguntza izan zen indarra eman ziona proiektuari, eta horregatik eskertuta dagoela esan du Zalakainek. Proiektu izatetik produktu bihurtzera igaroko da las- ter. Zalakainek Wura enpresa sortu du eta oraingoz *Arraun sentsoreak* deitzen dio produktuari. «Kirola hobetzeko teknologia sortzea da enpresaren helburua», zehaztu du. «Lehenengo proiektua arraunarekin lotuta dago, baina ez da arraunera soilik zuzendutako enpresa bat». Produktuaren patentea ere martxan dagoela azaldu du egileak. «Produktua bera ere eboluzionatzen ari den heinean, ziurrenik ezaugarri berri batzuk ere egongo dira patentatzeko», zehaztu du.

Zalakainek sortu duen *Arraun sentsoreak*, izenak dioen moduan, sentsorez osatuta dago, eta gero software bat du anali- siak egiteko. Bi sentsore mota daude, horietako bat arraunetan jarrita dago, arraunlari bakoitzaren jarduna neurtzeko, eta bes- tea traineruan dago, ontzia nola doan neurtzeko. «Traineruan ja- rritako sentsoreak abiadura, pa- lada bakoitzean ontziaren abia- dura nola aldatzen den, ze ange- lutan dabilen, branka gora eta



Orioko gizonezkoen lehen taldea, aurreko igandean, portutik ateratzen, Kontxako Banderaren lehen jardunaldian parte hartzeko. I.G.L.

behera ote dabilen, edo ontziak aldamenara balantza egiten duen jasotzen du. Azken finean, bere errendimendua neurtzen da eta identifikatu daiteke arraunlari bakoitzak egiten duenak nola eragiten duen». Arraun- etan eta traineruan dauden sentsoreen datuak bilduta, «en- trenatzaileak nahi duen arraun- keta lortzen lagundu nahi da».

GEHIAGO EZAGUTZEA

Traineruen modalitatean da- tuak jaso gabe zeudela gaineratu du Zalakainek. «Entrenatzaile bakoitzak asko daki, baina gehiago da begiekin-eta jasota- koa. Ikerketa asko daude aulki mugikorrarekin, eta horregatik nahi dugu parekatu gure kirola modalitate horrekin». Ikerketa horretan sakontzeak bi onura ekarriko lituzkeela dio: «Batetik, arrauna gehiago ezagutzea. Bes- tetik, ezagutza hori aplikatzea traineruetan, errendimendu hori hobetzeko».

Oraingoz Orioko gizonezkoen lehen traineruarekin ari da lane- an Zalakain. «Aurtengo urtea oso arraroa izaten ari da», zehaztu du ingeniariak. «Urte hasieratik lanean hastera pentsatzen ge- nuen, eta entrenamendu serioak hasi behar zituztenean, konfina- mendua iritsi zen. Gainera, arrauna izan zen kanpoan entre- natzen utzi zuten azkenetako ki-



Orioko arraunlari bat, sentsorea itsatsita duen arraun bat eusten. ATARIA

rola. Beraz, entrenamendu eta prestaketa denbora hori guztia galdu egin genuen, eta, hain jus- tu, sistema hau egokia da garai horretarako, gauzak zuzentze- ko». Sentsoreak lehiaketarekin batera erabiltzen hasi ziren zuzenean, eta lehiaketan gauzak al- datzea «zaila» dela zehaztu du Zalakainek. «Hortaz, sistemaren bitartez kontrol lan bat egin dugu, eta gauza puntual batzuk aldatu. Gehiago izan da datuak biltzea, eta datorren urtera begi- ra emaitza handiagoa ekarriko du».

Jon Salsamendi entrenatzaile- arekin egin du lan bereziki. «Sal- samendi aulki mugikorreko Es- painiako txapelduna izandakoa

da, ia Olinpiar Jokoetara joanda- koa, eta berak asko daki», esan du Zalakainek. Egindako lanak bere ondorioak izan ditu. «Esate- rako, uste zen zerbait gero kon- firmatu egin da bildutako datue- kin. Edota kirolari bat neurtu, eta ezustekoa hartu da, uste bai- no maila hobea ematen duelako ontzian». Bestalde, sentsoreen bitartez ere ikusten da, ez dela bakarrik arraunlari bakoitzak egiten duen ekarpena kontuan hartu behar, baita beraien arteko lana ere. «Gertatu daiteke arraunlari guztiek arraun ondo egitea, baina denak batera ez, eta horrek ontziari eragin handia egiten dio», esan du Zalakainek. «Hain justu, sinkronizazioa gal- tzen denean, errendimenduan eragin handia duela ikusi da, eta horrek atentzioa eman du».

«URTE ARRAROA»

Zalakain triatloilaria da, baina aurtan ez da lehiaketetan aritu, COVID-19ak sortutako egoera dela eta. «Broma egiten genuen, baina esaten genuen nik ez du- dala kirola utzi, baizik kirolak utzi nauela, ez dudalako aukera- rik izan lehiatzeko», esan du to- losarrak. «Urte arraroa izan da, ohituta baikaude urtea lehiake- ten arabera banatzen. Maiatzean hasi eta hor proba batzuk daude, gero ekainean beste batzuk... Erreferentzi horiek balduta,

arraroa egiten da urtea», azaldu du.

Kirola egiten jarraitzeko as- moa du tolosarrak. Udan sentso- reen proiektuarekin nahiko lan izan du, eta ez du beste urteetan bezain beste entrenatu. «Maia- tza eta ekaina arte aritu naiz, bai- na traineruen denboraldia hasi- ta ez dut denbora handirik izan», zehaztu du. Bestalde, lehiaketa- ren grina traineruarekin bete duela gaineratu du: «Ni ez naiz lehiatu, baina lehiaketaren munduan egon naiz, besteen errendimendua aztertuz eta hori hobetzen saiatuz». Bere kirolari dagokionez, aurrera begira tria- tloi lehiaketak noiz jarriko diren martxan ez dakiela dio Zalakai- nek: «Une honetan planak egi- tea oso zaila da».

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

JARRAI GAITZAZUE

 Billabona Fke

 Billabonaf.k.e

 Billabonafke



OSTEGUNA, 2020KO IRAILAK 10
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 10

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Ohiko Osoko Bilkura, 19:00etan, batzar aretoan.
Tolosa. *El huevo del dinosaurio* filma, zine forumean, Leidorren, 20:30ean.
Tolosalde. Lehiberri Management School. *Nola finantzatu formazio eta garapen planak.* Hizlaria: Ana Ugalde, Gipuzkoako Bazkuna. Online bidez eskainiko da. 09:00etatik 11:00etara.

Erakusketak

Bedaio. Azken Muga: *Zumeta bihotzean.* 30 artisten lana Zaratetxean.
Tolosa. Topic-eko anbiguan, kale-ikuskizunei buruzko erakusketa.
Tolosa. Ana Amigo tolosarraren erakusketa, 3 Tabernan. 15 oleotan, Tolosako begirada berezia.

+ FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

28 KANALA

GAUR

11:00. Lotsagabe
11:30. Gaurkoan Tolosalde
12:00. Zarauzko Euskal Asteko Trikitilari Gazteen XL. Txapelketa
17:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:30. Gaurkoan Tolosalde
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Leihotik Begira

BIHAR

11:00. Elkarriketap
11:30. Gaurkoan Tolosalde
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosalde
21:30. Gaurkoan Tolosalde
22:00. Hiri baratzea

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro eguzkitsua eta egonkorrekin jarraituko dugu. Goizean hodei batzuk agertuko dira eta zerua ez da aurreko egunetan bezain argi agertuko. Hala ere, eguerdi, arratsaldeko lehen ordurako garbituko du eta arratsaldean giro eguzkitsua nagusituko da. Haizeak iparraldetik joko du eta termometroak antzeko balioetan mugituko dira, maximoak 26-27 gradu artean errendituz.



Bihar. Uda-sasoiko giro ederra. Goizean hodeixka batzuk agertuko dira berriz ere baina garrantzirik gabeko hodeiak izango dira. Eguerdirako garbitu eta giro eguzkitsua nagusituko da arratsalde osoan. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoa zertxobait igoko da, 27-28 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Kolaboratzaile izan nahi 'Ataria'-n?

Eskualdeko euskarazko komunikabideak zabalik ditu ateak bere plataforma desberdinetan parte hartu nahi duen ororentzat


Erredakzioa

Hasi da ikasturte berria, eta azken urteetan egin moduan, kolaboratzaile izan nahi dutenei ateak zabalduko dizkie TOLOSALDEKO ATARIA-K. Proiektua eskualdeko herritarrei ahalik eta gehien zabaltzen jarraitzea da euskarazko komunikabidearen helburua, eta horregatik, beste behin, bertan parte hartzeko aukera zabaldu du. Beraz, idaztea gustuko dutenek, euren iritzia partekatzeke nahi dutenek, edota sortzen duten hori erakutsi nahi dutenek aukera paregabea dute.

Komunikabide bat, ezinbestean, ahots ugari osatzen dute. Komunikabidean bertan gidari lanetan aritzen direnena garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da beste aldean daudenena, entzule-irakurleen ahotsa, alegia.

PARTE HARTZEKO MODUAK

ATARIA-K duen plataforma desberdinetan dute lekua ahots horiek, bai webgunean, bai paperean, bai eta irratan ere. Parte hartzeko moduak askotarikoak izan daitezke, iritzi emaile moduan, artikulu, elkarrizketa edo erreportajeak idatziz edota *Ataria irratan* kolaboratzaile bezala edota saio propioa izanda parte hartuz.



Modu askotara har daiteke parte, astekariko iritzien atalean, esaterako.

Eskualdearekin zerbait partekatu nahi duten guztiek dute lekua, beraz, ATARIA-n, eta horretarako, komunikabidearekin harremanetan jarri baino ez da egin behar. Bideak ondorengoak dira: helbide elektronikoz ataria@ataria.eus helbidera mezua bidali daiteke. Beste horrenbeste egin daiteke TOLOSALDEKO ATARIA-ko erredakziora bidalita, Tolosako San Esteban, 20. 20.400 helbidera. Telefonoz ere

herritarren, elkarten edota eragileen proposamenak entzuteko irrikaz egongo da ATARIA-ko lantaldea, 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta.

Kolaboratzaileen sarea handitu eta aberastu nahi dutenen proposamenak jasotzen hasia da dagoeneko ATARIA, beraz, horien babesa eskertzearekin batera, herritar oro gonbidatu eta animatu nahi du proiektua bere egitera.



ordaindu 30€
kontsumitu 45€!

ostalaritza bonoak salgai
urriaren 25a arte!

Ikatzeta Taberna, Elurra Taberna, Ieltxu, lurre Taberna, Plan B, Botarri, Ilargi, Bar Izarra, Bar Eguzki, 66 Taberna, Bar Saikin, Amaiur, AMA, Alondegia, K2, Jokel, 3 Taberna, Xare, Bide Bide.

suspertutolosa.eus

TOLOSA